

Hegoaldeko Ikuspegiak

# III. KOMUNIKAZIO SOLIDARIOA LEHIAKETA

Antolatzailea



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI

Euskadiko Garapenerako GKEen  
Koordinakundeak

Hegoaldeko Ikuspegiak  
III. Komunikazio Solidarioa  
Lehiaketa  
abian jartzen du

## Diru-laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kinletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua  
Departamento de Deportes y Acción Exterior

Giza Eskubideak Derechos Humanos



ENPLEGU ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA  
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y  
ASUNTOS SOCIALES  
Dirección de Cooperación al Desarrollo



**Bilbao**  
UDALA  
AYUNTAMIENTO



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasun eta Lankidetzeta Atala  
Sección de Igualdad y Cooperación



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

## Laguntzaileak



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



Oficina de Cooperación  
al Desarrollo

Garapenerako  
Lankidetzeta Bulegoa



**EL CORREO**



## Helburuak:

- Elkartasunaren eremura eta garapenerako lankidetzara hurbiltzea.
- Etorkizuneko profesionalek gizarte gaiak eta gai solidarioak aurkezteko moduak hobetzea komunikabideetan.

## Oinarriak

### 1. Deialdia egiten dutenak

Euskadiko GGKEen Koordinakundea, Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen laguntzarekin (UPV/EHU).

Finantzatzen dutenak: Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Udalek, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak.

### 2. Hartzaileak

Deialdia EHuko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko azken bi ikasturteetako ikasleei zuzenduta dago (Kazetaritzako, Ikus-entzunezko Komunikazioko eta Publizitatea eta Harreman Publikoetako lizentziaturak). Hala eta guztiz ere, tailerretan plaza libreak egonez gero, lehenengo eta bigarren mailako ikasleek ere parte hartzeko aukera izango dute.

### 3. Xedea

Hegoaldeko herrialdeen errealitatea islatzen duten kazetaritza eta publizitate lanak (jendearen bizimodua, garapena, kultura...) aurkeztea. Beti ere errespetatu beharko dituzte Europako Gobernuaren Kanpoko Erakundearen eta EBren arteko Lotura Bartzordeak Hegoaldeko herrialdeei dagokienez eraturako irudi eta mezuen Kodean zehazten diren 10 arau praktikoak. Arauak 1989an aurkeztu ziren EBn.

Nolako lanak nahi ditugu?

- Lankidetzako esperientziez tonu baikorreetan hitz egiten dutenak.
- Hegoaldeko protagonistak nabarmentzen dituztenak.
- Iparraldeko eta Hegoaldeko kolektiboen arteko korrelazioa azpimarratzen dutenak.
- Hegoaldeaz, garapenaz eta lankidetzaz irakurtzera, ikustera eta entzutera ohituta gauden informazioak modu ezberdin eta alternatiboan ematen dituztenak.
- Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzen duten proposamen bidezkoagoen bidez gizartea aldatu nahi duten lanak, horiek garapenaren prozesuari ezinbestean atxikita egon behar baitute.
- Garapenerako GKEei edo antzeko izaera dutenei lotutako elkartasunezko mezuak helaraztea eta zabaltzea.
- Hegoaldeko herrialdeen errealitateak islatzen dituzten eta horien benetako irudiak proiektatzen dituzten informazio iturri egokiak erabiltzea (Garapenerako GKEak edo beste batzuk).

#### 4. Modalitateak

Lanak idatziz, euskarri grafikoetan edo ikus-entzunezko edota irratiko baliabideak erabiliz aurkeztu ditzakete.

Lanak euskaraz edo gazteleraz aurkeztu daitezke.

Banakakoak edo taldekoak izan daitezke.



## 5. Luzera eta iraupena

### Kazetaritza lanak:

- Lana idatzizkoa bada, luzerari dagokionez, ezingo ditu bi orri baino gehiago izan (Word, espazio bakarra, Times New Roman 12). Irudiak ere erantsi daitezke.
- Lana ikus-entzunezkoa bada edo irrati baliabideak erabiliz egin bada, grabaketak ezingo du bost minutu baino gehiago iraun.

### Publizitate lanak:

- Lana grafikoa bada, publizitate iragarki inprimatu bat edo web-orri baterako iragarki elementu bat.
- Lana ikus-entzunezkoa bada, ikus-entzunezko edo irratiko iragarkia, 20 segundo inguruko iraupena izango duena.

Aurkeztutako lanak eta haien testuingurua hobeto ulertzeko, beharrezkotzat jotzen den informazioa atxikitu beharko da.

## 6. Informazio bisitaldiak Garapenerako GKEetara

Aurkeztutako lanen edukiaren kalitatea izango da irabazleak hautatzerakoan jarraituko den irizpide garrantzitsuena. Horregatik, parte-hartzaileek Koordinakundeko kide diren edozein GGKEetara edo beste iturri batzuetara jotzeko aukera dute, beren lanetan jorratuko duten errealitateari buruz informatu eta kontsultak egiteko, eta, horrela, Hegoaldeko herrialdeen egoera modu egoki batean islatuko duten kazetaritza eta publizitate lanak aurkezteko. Euskadiko GGKEen Koordinakundeko kide diren erakundeen zerrenda, lanak aurkeztu aurretik egingo diren prestakuntza tailerretan banatuko da.

Epaimahaiak kontuan hartuko du lanak egiteko informazio iturri egokiak erabili izana.

## 7. Aurkezteko epea eta lekua

Lanak Garapenerako Lankidetzaren Bulegoan aurkeztuko dira (Sarriena Auzoa z/g. Liburutegiko Eraikina, Leioako Campusa) 2010eko apirilaren 30a baino lehen. Egun horretara arte aurkeztutako lan guztiak onartuko dira baina bidalketa data egiaztatu beharko da, aukeratutako bidalketa moduaren bidez.

Lehiaketaren antolatzaileak parte-hartzaileen esanetara izango dira zalantzak argitzeko eta lanak egiterakoan laguntza eskaintzeko.

## 8. Identifikazioa

Parte-hartzaileen anonimatua babesteko eta epaimahaiari lana errazteko xedez, ezingo da autorearen identifikaziorik agertu, lanaren azalean edo agerian dagoen beste edozein tokitan. Lanaren izenburua edo goiburua soilik agertuko dira.

Gutun-azal itxian aurkeztu beharko dira, lanetik aparte, aipatutako izenburua edo goiburua zein autorearen identifikazio osoa eta harremanetarako datuak (telefonoa, posta elektronikoa, helbidea...).

Era berean, parte-hartzaileak lana garatzeko erabili dituen informazio iturrien zerrenda bat erantsiko du.

## 9. Epaimahaia

Epaimahaia honakoek osatzen dute: Euskadiko GGKEen Koordinakundeko ordezkari batek, UPV-EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakasleek eta komunikabideetako profesionalak eta erakunde finantzatzaileetako ordezkariak.

## 10. Baremazioa

Oinarri hauetan dauden baldintzak betetzen dituzten aurkeztutako lan guztiak barematuko dira.

## 11. Sariak

- Saritutako lanak komunikabide laguntzaileetan argitaratu edo hedatuko dira: Cadena Ser, El Correo eta Radio Euskadi.
- Horrez gain, sarituek hiru asteko egonaldia egingo dute (gehienez hiru pertsona) Euskadiko GGKEen Koordinakundeko GGKE batek edo batzuek Hegoaldeko herrialdeetan gauzatutako eta lehiaketaren erakunde laguntzaileek finantzatutako garapenerako lankidetzaren proiektuetan. Sarituek komunikazio lan zehatz bat egingo dute proiektu horietan eta, bestalde, Hegoaldeko herrialdeen errealitatea ezagutzeko aukera ere izango dute. Itzuli ondoren, sentsibilizazio-lanak garatu ahal izango dituzte.
- Epaimahaiak erabakiko du lan saritua, taldekoa edo banakakoa izango den, azken kasu horretan, hiru sari izango lirarteke.

## 12. Oharrak

- Lehiaketara aurkeztu ahal izateko, derrigorrezkoa da tailerretara joatea.
- Erakundeek sarituei esperientziari hedapena ematea eska diezaieke.
- Saria hutsik geratuko da, epaimahaiak hala erabakitzen badu.
- Lehenago GGKE batek edo beste edozein komunikabidek argitaratutako lanak ezingo dira lehiaketara aurkeztu.
- Parte-hartzaileak edo erakunde laguntzaileak aurkeztutako lana argitaratu nahi izanez gero, Euskadiko GGKEen Koordinakundeari kontsultatu beharko dio. Horrela, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak aholkuak emango ditu lanak publikoki zabaltzeari edo edukiari buruzko egokitasunari dagokionez, betiere Europako Gobernuaren Kanpoko Erakundearen eta EBren arteko

Lotura Batzordeak Hegoaldeko herrialdeei dagokienez eraturako irudi eta mezuen Kodea (EBn 1989 aurkeztutakoa) erreferentzia gisa hartuta.

- Interesatuak lana eskatzen badu, itzuli egingo zaio, baina erakundeak kopia bat gorde dezake lanari zabalkundea emateko.
- "Hegoaldeko Ikuspegiak" lehiaketa solidarioan parte hartzen duen orok bere osotasunean onartu behar ditu oinarri hauek. Euskadiko GGKEen Koordinakundeak ebatziko du gerta litekeen edozein ustekabe, bera baita Lehiaketaren erakunde antolatzailea.

## Tailerrak

### Eguna eta ordutegia:

2009ko abenduaren 14an eta 15ean, 16:00etatik 20:00etara Ikastegiko 2.3 Mintegian.

### Lekua:

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.  
Leioako Campusa.

### Orduak guztira:

Tailerrek zortzi orduko iraupena dute. Tailerretara joateagatik eta lehiaketara aurkeztutako lanagatik aukera askeko bi kreditu emango dira (lana aurkeztu behar da kreditu horiek lortzeko).



## Izen emateak:

- **Lekua:** Garapenerako Lankidetzaren Bulegoan (Sarriena Auzoa z/g. Liburutegiko Eraikina, Leioako Campusa).
- **Izena emateko azken eguna:** 2009ko abenduak 10, osteguna. Plaza kopurua mugatua da eta izena emateko hurrenkeraren errespetatuko da. Lehentasuna izango dute Kazetaritzako, Ikus-entzunezko Komunikazioko eta Publizitate eta Harreman Publikoetako lizentziaturako azken bi ikasturteetako ikasleek.
- Euskadiko GGKEen Koordinakundeko eta kide diren GGKEetako langileek emango dituzte tailerrak.

## Informazio gehiago:

Euskadiko GGKEen Koordinakundea

Tel.: 945 28 07 45

comunicacion@ongdeuskadi.org

www.ongdeuskadi.org

## Tailerren edukiak eta helburuak

<b>Edukia</b>	Zein da gure ikuspegia Hegoaldeko herrialdeei eta haien errealitateari dagokienez?
<b>Helburua</b>	Erakutsi Hegoaldeaz eta bere errealitateaz dauzkagun irudiak askotan ez direla errealak. Ikuspegi horiek aurreiritzi faltsuetan oinarritzen dira eta errealitatearen ikuspegi osoa ez edukitzeagatik ematen dira gehienetan.
<b>Edukia</b>	Zergatik dugu ikuspegi hori?
<b>Helburua</b>	Komunikabideetan ikusten ditugun irudiak izaten dira gehienetan Hegoaldeko ikuspegi oker horiek eragiten dizkigutenak. Hori konprobatzeko adibideak erabiliko ditugu.
<b>Edukia</b>	Nola saihestu daitezke Hegoaldeko ikuspegi oker eta distortsionatuak?
<b>Helburua</b>	Koordinakundearen irudi eta mezuen Kodearen tresna ezagutzea eta hori erabilia kazetaritza eta publizitate praktika hobea lortzen dela ikustea.
<b>Edukia</b>	Nola aplikatu daiteke Kode hori kazetaritza eta publizitate praktikan?
<b>Helburua</b>	Hegoaldeko herrialdeen mezuei buruzko kazetaritza eta publizitate praktika on eta txarren benetako adibideak eta adibide zehatzak ezagutzea eta horietan sakontzea.

